

SANTU EUSKALDUNAK (Jarraipena)

Epaillak 28

PRUDENTZIO DEUNA, ARABA'KO ZAINDARIA

Prudentzio Deuna Araba-ko Armentia'n —Gasteiz ondoan— jaio zan, 6.garren gizaldian. Zein urtean ezin esan...

Gaztetxo zalarik, Jaungoiko egarriz, basamortu ra joan zan Saturio bakarzale santuagaz batera otoiz eta penitentzia egitera.

Bere gogoaren maisu zan Saturio il zanean, Prudentzio Kalagorri'ra joan zan ango kristiñauen arteko gorrotoak baketzera. Lan, otoitz eta batez be pazientzi askoren ondoren, Kristoren maitasunak irabazi eban.

Tarazona'ko gotzain aukeratu eben, eta erri onetan naiko lanik egin izan bear ango bizilagunen artean bakeak lortzeko.

Osma'ko errian eztabaida gogorak sortu ziran eliz-gizon eta erriaren artean. Prudentzio bakeak egiteko eukan doai berezia jakiñik, ara bialdu eben Tarazona'ko gotzain santua. Bake-lánean ebillela Jaungoikoak deitu eutsan betiko bakezko erreinura.

Prudentzi Deunaren bizitza berba gitxitan adierazteko, bake-zale eta bake-egille izan zala esan ebar.

1949 urtean Pio 12.garrenak Arabako zaindari izentatu eban.

Lorailak 9

BERRUETZA'KO GREGORIO GOTZAIN SANTUA

Santu au ez da Euskalerrian jaioa, Italia'ko Ostia urian baiño, alan eta guztiz be, Nafarroako lurraldetan egindako Ebanjelioaren aldeko lanakatik gure deunen artean jartzen dausku euskal liturjiak.

Ostia'ko gotzain zalarik, Benedicto XI garren Aita Santuak Nafarroako Errege Gartziarengana bialdu eban «Legatus pontificius» bezela, 1.053 urtea.

Aldi aretan gaurko Errioxa osoa Nafarroako erregearen menpean egoan, eta Naxera zan orduan Euskalerriko uriburu. Erri onetako eleiza ederrean ainbat nafar errege eta erregeiñen illobiak dagoz, gaur be.

Santu onen lana gogorra izan zan erriz-erri, atertu barik, Errioxa'ko lurraldetan Kristoren barri-ona zabaltzen.

Galtzada'ko Domingo (Santo Domingo de la Calzada) Gregorioren ikasle eta lagun mamia izan zan. Mirariak be bat baiño geiago egin ei ebazan, batez be Logroño aldeko soloak matxin-saltoa ondamenditik zaindu ebazanean.

1.048 urtean il zan, eta bere azurrak Nafarroan, Berruetza araneko San Gregorio Ostiense deritzan basilika ederrean gordeta dagoz.

Inguruko erriak, Los Arcos, Soslada, Lizarra eta abar, jaiera beroa agertzen deutsoe urtero Santu oneri.

(Jarraituko dau.)

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

UDABARRIA

1. *Udabarría, zoragarria: agurtzen zaitut poz-pozik. Egun ederrak ona dakazuz, zuk gaukazuz zoraturik.*
2. *Aize biguna, lorak usaintsu zabaltzen dira gugaño. Mundu barria, jalo barri lez, agertzen yaku, irriño.*
3. *Ingurukoak, aize epelez, gozatuten dabe dana. Egualdia zoragarri dau, dogun aize be, ona.*
4. *Bedar ta lorak, usain gozoaz zabaltzen dabe, daukena. Eta txoriak egiten dabe dakiten kantu onena.*
5. *Euren maitasun eta senagaz, gure dabe abia ein. Eta or lanez biak dabilnaz, arduraz, aita amakin.*
6. *Gero arrautzak ipinko dabez ta egopean berotu; kumeak urten, azala pikuz, eiten dabela apurtu.*
7. *Lana antzeko ule txikia ager da; gero lumatu ta danen pozaz, txori politik, egingo dira agertu.*
8. *Txoriak kantuz alaitzen dira, dana poztuten dabela; uda barriak, beste guztiak eskerrak damotzezala.*
9. *Alako dira ume ta mutil, udabarriren antzeko. Gero elduak, baita be zarrak bestaldera joateko.*

ARGINTXONA